

2005EKO URTARRILAREN 27KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta bosteko urtarilaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumeñaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes eta Xabier Arrasate Aierbe.

Igor Sarriegi Zumarraga, Gorka Lamy Intsausti eta Angel Olaso Villalba zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Juan Manuel Serna Portugal eta Milagros Alvarez Novoa zinegotziak bertaratzen direneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2004ko azaroaren 25ean eta abenduaren 20an egindako bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri emten du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- 6 H.A.KO (GERONTOLOGI ETXEA) XEHETASUN AZTERKETAREN BEHIN-BETIKO ONARPENA.-

Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 6 Hirigintz Areako -Zubizkitza Klean- Elkarteko Ekipamendu guneko (Gerontologi Etxea) Xehetasun Azterketari 2004ko abenduaren 2ko Alkatetzaren Ebazpen bidez eman zitzaion hasierako onarpena. Xehetasun Azterketa hau Roberto Gartzia Azpiri eta Ana Ezeiza Agirre arkitektoek idatzitakoa da eta 2004ko azaroko data darama.

Xehetasun Azterketa hau jendaurrean hamabost eguneko denboraldian eduki da eta epe horretan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Hau honela, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 6 Hirigintz Areako -Zubizkitza Klean- Elkarteko Eki-

pamendu guneko (Gerontologi Etxea) Xehetasun Azterketa hau behin betikoz onartzea erabakitzen du.

IV.- FUTBOL ZELAIKO BIRMOLDAKETA ETA ALDAGELEN 5. ZERTIFIKAZIOAK.-

Arizti Haundi Futbol Zelaiko Birmoldaketa eta Aldagelak proiektuaren obra zuzendaritzak lan hauen bosgarren zertifikazioak luzatu ditu. Futbol Zelaiaren Birmoldaketa lanen bosgarren zertifikazioa 50.477,38 eurotako da eta Aldagela proiektuaren bosgarren zertifikazioa 20.483,02 eurotako.

Obra zertifikazio hauek udal teknikarien oniritzia jaso dute.

Hau kontutan izanda eta zertifikazio hauek aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, zertifikazio hauek onartzea erabakitzen du.

V.- "STATUS POLITIKOAREN ALDE, EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA" ARERIAK IZENPETUTAKO MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

“STATUS POLITIKOAREN ALDE, EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA

700 euskal herritar baino gehiago dira jadanik, Euskal Herriak estatu espiniar eta frantziarrarekin duen gatazka politikoaren ondorioz mundu zabaleko kartzela desberdinetan sakabanaturik daudenak.

Mendetan zehar, eta bereziki herri honi askatasuna ukatzeko egin zen frankismoaren erreformaren ondoren, azken 25 urteotan, milaka izan dira atxilotuak, torturatuak, eta kartzeleratuak izan diren herritarrak. Mila bestalde, urtea joan eta urtea etorri, Euskal Herriak ihesean bizi behar izan dutenak.

Gatazka hau luzatzeko apustua egin duten bi estatuen aldetik, demokrazian oinarrituriko konponbidearen norabidean lan egin ordez, errepresioa eta zapalkuntza besterik ez da izan. Euskal preso politikoei sakabanaketa eta bakartzea aplikatuz, preso eta beraien senideen eskubide guztiak urratu zaizkie azken urteetan, preso zeudenen artean eta beraiekin egotera zihoazen senideen artean 35 heriotza sortuaz.

Espainiar eta frantziar kartzela sistemaren baitan Euskal preso politikoek jasan behar izan duten zigor gehigarriak izaera berezia eman baldin badie ere, urte hauek guztietan preso politiko izaera ukatu egin zaie. Bi estatuek onartzen ez duten gatazka politiko baten lehen larroan egon da Euskal Preso Politikoen Kolektiboa, dispertsioari gain hartuaz, preso gisa dagozkien eskubideen aldeko defentsa eginaz eta batik bat Euskal Herriaren eskubideen defentsan eragile garrantzitsua bilakatuaz. Kolektibo izaera gorde dute, borroka konpromezuaren tresna nagusi gisa.

Gaur da eguna, frantziar eta espainiar estatuek herri honi inposaturiko marko politiko-juridikoen krisia eta baliogabezia agerian dagoena. Gaur da eguna gatazka politikoa inoiz bai-

no ageriagoan dagoena eta gaur da eguna, herriak behingoz gatazka hau (eta bide batez bere ondorioak) konpontzeko beharra inoiz baino ozenago aldarrikatzen duena.

Gatazkaren konponbidea, euskal herritar guztein hitza eta borondatearen errespetutik etorriko da. Hau gero eta herritar eta eragile gehiagoren ahotik entzuten ari garen argudioa da. Bide honetan Euskal herrian demokrazia eta bakera bidean pauso ausartak emateko garaia da, inoiz baino garrantzitsuagoa da munduan zehar eman diren prozesu politikoe-tan presoek kolektiboek izan duten parte hartze eta paper zuzena erreferentzian izatea. Hor dugu Irlandako kasua Hego Afrikakoa eta beste hainbat. Ez da gatazkarik konponbi-dean jarri kolektibo hauen parte hartzerik gabe.

Euskal Herriaren hitza eta erabakia errespetatzean datza gatazkaren konponbidea. Bi es-tatuen aldetik errepresioa besterik ez da izan oraingoz konponbiderako aukera guztiak za-pu-tuz. Jarrera honen parean tinko aurrera egiteko garaia da. Aukerak egon badaude bai-na aukera hauek gauzatu egin behar ditugu.

Euskal herritar guztiek hitza libreki hartze bidean, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak ere zuzenean parte hartzeko aukera izan dezan, eta era berean gatazka politikoaren ondorio izanik status politikoa onartua izan dakion hiru hilabetetako borrokaldiari ekin diote preso-ek. Horren aurrean Azeria Herri Plataformak, Lazkaoko Osoko Udal Batzarrean honako puntu hauek aurkezten ditu bertan eztabaidatuak eta onartuak izan daitezen.

- 1.- Euskal Preso Politikoen Kolektiboa, gainontzeko euskal eragileen gisan. Euskal herria-ren hitza eta erabakia gauzatzeko bidean zuzenean parte hartzeko duen eskubidea al-darrikatzen du Udal honek.
- 2.- Udal honek, parte hartze hori behar den baldintzetan eman dadin, isolamendu eta sa-kabanaketarekin bukatu eta euskal presoek Euskal Herrian egoteko duten eskubidea bere egiten du.
- 3.- Aldarrikapen horiek gauzatu daitezen, martxan den presoek borrokaldiarekin bat egi-ten du Udal honek.
- 4.- Borrokaldi hau babesteko antolatzen diren mobilizazioetan parte hartzeko deia luza-tzen dio Udal honek, herritarrei.
- 5.- Erabaki honen berri herritarrei ematea deliberatzen du Udal honek.

Euskal Herrian 2005eko urtarrila.”

Une honetan Juan Manuel Serna eta Milagros Alvarez zinegotziak bertaratzen dira.

Alkateak esaten du mozioaren aurka bozkatuko dutela eta bere alderdiaren (EAJ) jarreraren azalpena egiten du. Honako hau esaten du:

“Lehenik eta behin, printzipio humanitarioekin zein gizaki ororen eskubide eta askatasune-kin dugun konpromisoa aldarrikatu nahi du.

Hortik abiatuta, Euskal Presoek, gainontzeko euskal hiritarren gisan, Euskal Herriaren hitza eta erabakia gauzatzeko bidean zuzenean eta inongo trabarik gabe parte hartzeko duten eskubidea aldarrikatzen du.

Euskal Presoek, etxetik eta sendietatik hurbil egoteko duten eskubidea berretsiz, sakabaketa eta isolamendu egoerak behin betirako amaitzea exijitzen du.

Benetako bake prozesu batetan, Espainiako Gobernuak eta ETAk, Euskal presoen arazoari eutsi behar diotela, konponbide eta akordioak lortzeko borondatearekin eta ausardiarekin.”

Goenaga zinegotziak (EA) bere alderdiaren jarreraren azalpena egiten du. Honako hau esaten du:

- 1.- “Euskal Herriak ahots, hitz eta erabakia izateko eskubide duela aldarrikatzea eta inork ez duela zilegitasunik beraren proiektua indarrez inposatzeko baieztatzea. Euskal gizarte aske eta integratu bat, eta Europar Batasunaren barnean nazio eraikuntzarako prozesu bat, erabat bateraezinak dira indarkeriazko edonolako adierazpenekin.
- 2.- Gure Aberriko pertsona, arlo politiko eta sozial guztiak, bereizketarik egin gabe, politikaren egunez-eguneko bizitzan edozein indarkeriazko ekintza, mehatxu edo koakzioaren eraginik egon gabe parte hartzeko daukaten eskubidearen aldeko hartuta daukagun konpromesua adierazten du berriro ere.
- 3.- Pertsona guztien giza eskubideen defentsarekiko gure lehentasunezko konpromezua aldarrikatzen dugu, ezinezkoa delarik edozein motako bereizketa egitea bere ideia (zibil, politiko eta erlijiozkoak), sexu, adin, egoera zibil edo pertsona espetxeratuak izateagatik.
- 4.- Espainiar Estatuko Gobernuari exijitzea, indarrean den legedia aplikatuz eta ikuspuntu gizatiar bati jarriki, egungo espetxe-politika alda dezala, honela euskal presoek dagozkien eskubideak errespetatu daitezken. Eskakizun honek legedian araututa dauden neurrien ezartzea berarekin dakar; euren zigorraren hiru laurdenak beteta dauzkaten presoak berehala kaleratzea, gaixo diren presoak kaleratzea, askatasunik gabe diren euskal herritarrek euren jaioteritik hurbilen dauden espetxeetara hurbiltzea, eta espetxe barruan bizitza erregimena, bisitak, ikasketak, hizkuntzaren erabilpena eta abarri dagozkion eskubideak erabat errespetatzea.
- 5.- Herritarrei dei egitea giza eskubide guztien errespetua eskatzerakoan gizartearen parte hartzearen garrantziari buruz, bizitza eskubidearen errespetutik hasi eta, kasu honetan, askatasunik ez duten hiritarren eskubideena ere.
- 6.- Gure herriak bizi duen gatazka politikoaren irtenbidera bakarrik elkarriketaren bitartez heldu daitekeela eta, baita ere, bai biolentziaren estrategian, bai bide errepresiboetan mugitzen diren pertsona guztien paper sapustutzailea salatu nahi dugu.”

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du mozioaren aurka bozkatuko dutela eta ez dela kontsiderazioetan sartu ere egingo.

Guzti honen ondoren, gaia bozketan jartzen da eta, Osoko Bilkurak, bertaratutako guztien aurkako botuekin mozioa ez onartzea erabakitzen du.

VI.- "AHT-RI AURRE EGIN" ARERIAK IZENPETUTAKO MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

"AHT-RI AURRE EGIN. MOZIOA

Urteak dira, Euskal Herriaren lurzoruaren gainean eraiki daitekeen gehiena eraikitza iristear gaudela esaten ari garela. Baina gaur da eguna, Euskal Herria, bere garapenaren izenean eraiki denari eta are gutxiago eraiki nahi denari eusteko adinako espazio eta ahalmenik gabe geratu dena.

Herri bezala edukitzea ezinbestekoa zaigun ikusmolde bat gabe, nazioarte mailako eragin ardatzen baitan kokatuta, edo aldiz, kuspuntu sektorial eta partzial huts batetik soilik egiten dira azpiegiturak herri honetan; lehen eraikia daogena hobetzeko asmorik gabe eta eginak dauden gainontzeko azpiegiturekin uztartu gabe.

Europa mailan porrot egin duten azpiegitura formulak, aurrerapenaren izenean gauzatu nahi dira hemen, herri honetako baldintza eta orografia eredu honek porrot egin duen eremuekin alderatuz askoz ere kaxkarragoak izanik ere.

Hauxe da gaur egun, makro azpiegituren aurrean egin genezakeen irakurketarik sinple eta gardenena, eta AHT-ak berez aspalditik eskuartearen dugun arazo hau biderkatu besterik ez du egiten.

Milaka hektarea lur behar dituen azpiegitura erraldoi hau, egiazkoak ez diren argudioetan oinarrituta ari da garatzen:

Ez du merkantzien arazoa konpontzen. Ez du gure eskualde eta herrien arteko sarea indartzeko balio. Egiten den inbertsioaren errentagarritasuna ateratzea ezinezkoa da, agortuta dagoen marko politikoaren neurrira eginiko azterketa eta ibilbideak ditu eta besteak beste, milaka herritarren borondatearen gainetik inposatua da.

Jaurlaritzak, AHT-ri BAI esateko kanpaina da inposaketaren eredu nagusia. BAI esateko aukera besterik ez dago eta herritarrek esan ordez, baiezkota esatea ere Jaurlaritzako kideen esku geratzen da, gainontzeko milaka herritarrok ez dugulako guri iritzia emateko aukerarik.

Argudio hauek kontutan hartuz eta AHT-ren lanek Euskal Herriaren aurrean izan dezakeen eragin atzeraezinaren aurrean Areria Zutabea Herri Plataformak honako mozi hau aurkeztzen du Osoko Udal Batzarrean eztabaidatua eta onartua izan dadin:

- 1.- Udal honek, Abiadura Handiko Trenaren proiektua gelditzea eskatzen du, gure herriarentzat garapen politiko, ekonomiko eta sozialaren ordez, kontaezin adinako kalteak ekarriko dituelako, gutxi batzuen mesedetan.
- 2.- Udal honek, behingoz, Euskal Herria osoko ikusmirarekin azpiegiturei buruzko eztabaida politiko eta sozial bat hasteko premia aldarrikatu eta bultzatu nahi du.

- 3.- Bitartean, gauzatu nahi diren azpiegitura erraldoi hauen eta bereziki Abiadura Handiko Trenaren MORATORIA eskatzen dio Udal honek Eusko Jaurlaritzari, Nafarroako Gobernuari eta Espainiar Estatuko Gobernuari. Aurrera begira emango diren pausuak Euskal Herri osoko interesen arabera izan daitezkeen eta atzeraezinak izan daitezkeen kalteak ekiditearren.
- 4.- Udal honek, AHT gelditzeko antolatzen diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartze-ko deia egiten die herritarrei.
- 5.- Onarturiko eduki hauek publiko egiteko erabakia hartzen du Udal honek.

Euskal Herrian, 2004ko abenduan”

Alkateak esaten du mozioaren aurka bozkatuko dutela eta bere alderdiaren (EAJ) jarreraren azalpena egiten du. Honako hau esaten du:

“Euskal Erkidego Autonomoan azken 150 urteetan industriaren inguruan kultura sakon bat garatu dugu, XIX. Mendean Bilboko Portuaren inguruan hasi eta abiada hartu duena. Kontuan hartu beharra dago, ordundik gaurdaino populazioak izugarrizko hazkunde izan duela eta populazio hau hiri handien inguruan biltzen da.

Ezin diogu industria kultura honi bizkarra eman, baina garapena jasangarria izateko saiakera berezi bat egin behar da eta bide hau gure erakundeak (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundia) ondo baino hobeto lantzen ari dira, nazioarteko konpromisoak (Kiotoko protokoloa) eta Europa mailan hartutako neurriak eredutzat hartuz.

Perspektibaz begiratzen badugu, azken hamarkadatan emandako urratsak oso emankorrak izan dira, eta horrela ikusi behar ditugu: uraren zikloak ixtea (saneamendu eta depurazioa), parke naturalen hedaketa (Aiako Harria, Aralar, Aizkorri, Urkiola e.a.), lur hezeen babesa (Orio, Zumaia, Txingudi, Urdaibai, e.a.). Industri kutsaduraren tratamendua, lur kutsatuaren isolaketa (Lindanearen isolamendu eta trataera) eta hainbat eta hainbat ekintza zuzentzaile. Zentzu honetan ere ikusi behar dira hiri hondakinen trataera egoki bat gauzatzeko ematen diren urratsak.

Gaur egun ingurugiroarekiko kalterik nagusienak mugikortasun ereduaren ondorio dira. Garraio sistema, oso kutsakorra den errepedeetan oinarrituta dagoelako, erregai fosilak erabiltzen direlako eta CO₂aren isurketa gehiegizkoa delako. 9.000 kamioi pasatzen dira egunero Irungo mugatik eta 600.000 pertsona mugitzen dira egunero gure EAEan arrazoi bat edo besterengatik (lana, eskola, e.a.).

Gure gizarteak bizi kalitate faktore bat bezala ikusten du mugikortasunaren ahalmena eta aukera ezberdinak izatea. Bi arrazoi hauek kontutan hartuz, beharrezkotzat jotzen dugu trenbide sare egoki bat edukitzea (tranbia, hurbileko trenak, ibilbide luzeko trenak, metroa) eta bereziki merkatal garraioak ere zati handi batean trenez egitea. Horregatik beharrezkotzat jotzen dugu hirietan tranbiak hedatzea, Euskotren sarea indartzea, bailaretako trenak berreskuratzea (Deba bailarakoa) eta Europako hiriak gure hiriburuekin lotuko dituen tren sare berria eraikitzea.

Ondorioz, gure EAEko erakundeei ekindako bideari jarraitzeko eskatzen diegu, modu egokian, biharko naturaren egoera gaur egungoa baino hobea izan dadin.

Jasangarritasuna ez da gaur egun dagoen inguruan ezer ez aldatzea, modu egokian egitea baizik, datozen belaunaldiak gizarte eta naturaren arteko harreman orekatu bat izan dezaten.”

Goenaga zinegotziak (EA) bere alderdiaren jarreraren azalpena egiten du. Honako hau esaten du:

“2004eko otsailaren 27an Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak, euskal trenbide sare berriaren behin betiko trazaketa onartu zuen.

Trazaketa horren onarpena, 10 urte inguru iraun zuen eta gizarte eragile ezberdinek beren alternatiba eta jarrerak mahai gainean jartzeko aukera izan zuten, prozesuaren baitan aurkeztutako alternatiba ezberdinen ebaluaketaren ondoren egin zen.

Eztabaida eta analisi prozesu luze horren ondorioz, hautaketa prozesu hura arautu zuten funtsezko irizpideekin -ingurumenari errespetoa eta jarduera jarraibideak garapen jasangarriaren testuinguruan kokatzea- bat zetorren alternatiba aukeratu zen.

Hori guztia kontuan izanik, gure jarrera hau da:

- 1.- Abiadura handiko Euskal sarea egitea, balio estrategiko handia duen premiazko beharra dela adieraztea.
- 2.- Sare horren gauzatzean partaide diren erakunde guztiei (Eusko Jaurlaritza, Estatuko Gobernu eta Europako Batasuna) azpiegitura horrek, eta ondorioz bere gauzatzeak, lehenetsun osoa dutela aitortu dezaten, eskatzea.
- 3.- Halaber, Eusko Jaurlaritzari, Euskal Autonomi Erkidegoan garraio-sare jasangarriaren lorpena bermatzeko, ingurumen-tresna eta baliabide ezberdinak garatzen eta abian jartzen jarrai dezala, eskatzea.”

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du alde batetik jasangarritasunari buruz hemen esan diren gauzekin ados daudela eta bestalde merkantzien garraioari buruz mozioan egiten diren zenbait baieztapenekin ez daudela ados. Gaineratzen du mozio honen zatirik garrantzitsuenak ez dela jasangarritasunari aipamena egiten diona baizik eta mozioaren bukaera aldera Euskal Herri osoko ikusmirari egiten zaion aipamenarena baizik, eta guzti honengatik mozioari ezezkoa emango diotela.

Guzti honen ondoren, gaia bozketan jartzen da eta, Osoko Bilkurak, bertaratutako guztien aurkako botuekin mozioa ez onartzea erabakitzen du.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak esaten du langile baten amatasunagatikoko baja aurrikusiz honen ordezkapen prozesua martxan jarriko dela. Gaineratzen du deialdia iragarkiak herrian zehar jarritako

eta egunkarietako herrietako kroniketan argitaratuz egingo dela eta izen ematen dutenen artean hautaketa prozesua aurrera eraman dezan LKS-TSI enpresari esango zaiola.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.